

FUNTSEZKO JARDUERAK



Gure eginkizun nagusiak honakoak izango dira:

Hasieran diseinua eta prototipoa garatuko ditugu. Diseinuaren argazki bat itsatsi dugu behekaldean eta prototipoa garatzean, zein hobekuntza behar dituen aztertuko dugu, adibidez nola egin arinagoa, nola kargatu azkarrago....

Hurrengo pausua marketina izango da; Sare sozialetan eta telebistan publizitate kanpainak abian jarriko dira, gure produktua merkatuan ezagutarazteko eta bezero potentzialak erakartzeko.

Ondoren, ekoizpena koordinatuko dugu gure artean, antolakuntza hobe batekin gehiago produzitzeko eta ahalik eta merkeen, eta materialak ere (tinta, plastikoa...) ahalik eta merkeenak erosten sahiatuko gara adibidez Txinan.

Gure produktua dendatara(eroski,media mark...) egoki ailegatzen dela ziurtatuko dugu.

Zalantzak badaude txartelarekin, sare sozialetan, edo dendan bertan argituko dira eta erreklamazioak badaude guk konponduko dugu.

Gero gure txartelaren hobetzea bilatuko dugu (adibidez ofertak egiten) eta berrikuntza teknologikoak izango ditugu; hala nola, Egoera solidoko bateriak, Litio polimerozko bateriak (LiPo) eta horrelako teknologien artean bat aukeratzea.

Jarraian, gure negozioak ahalbidetzen dizkigun baliabide ekonomikoen kontrol bat ezarriko dugu eta gure finantziatzaileak zaindu eta inbersore berriak bilatuko ditugu adibidez Elon Musk. Gero iphone , apple edo horrelakotan elkarlanean arituko gara denda desberdinetan saldu ahal izateko.